AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA ETA ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN ETA ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN MENDEKO ESTATISTIKA-ORGANO ESPEZIFIKOAK EZABATZEKO ETA HAIEN FUNTZIOAK EUSTAT-EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEARI ESLEITZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.	**ORDEN DEL VICEPRESIDENTE SEGUNDO DEL GOBIERNO Y CONSEJERO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO Y DEL CONSEJERO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE SUPRIMEN LOS ÓRGANOS ESTADÍSTICOS ESPECÍFICOS DEPENDIENTES DEL DEPARTAMENTO ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO Y DEL DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA, Y SE ATRIBUYEN SUS FUNCIONES AL EUSTAT-INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA.**
Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2026ko urriaren 13ko Aginduaren bidez, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren mendeko estatistika-organo espezifikoak ezabatzeko dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko prozedura hastea agindu zen, eta Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari esleitu zitzaizkion haren eginkizunak.	Mediante Orden de 13 de octubre de 2026 del vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo y del consejero de Vivienda y Agenda Urbana, se ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración y aprobación de un proyecto de Decreto de supresión de los órganos estadísticos específicos dependientes del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo y del Dspartamento de Vivienda y Agenda Urbana, y se atribuyen sus funciones al Eustat-Instituto Vasco de Estadística.
Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluak honela dio: “Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik”.	El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, señala que “una vez redactados todos los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio”.

Aipatutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuaren arabera, dekretu-proiektuaren testua idatzi ondoren, aldez aurreko onarpena eman behar zaio, dagozkion izapideak egin aurretik, eta, beraz, hauxe	En virtud de lo señalado, una vez redactado el texto del proyecto de decreto, de acuerdo con la finalidad establecida en la Orden de inicio del procedimiento, procede su aprobación previa con anterioridad a los trámites pertinentes, por todo lo cual
EBAZTEN DUT	**RESUELVO**
Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren mendeko estatistika-organo espezifikoak ezabatzeko dekretu-proiektuaren testua, eta Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari esleitzen zaizkio haren eginkizunak.	**Primero.-** Aprobar con carácter previo el texto del proyecto de decreto de supresión los órganos estadísticos específicos dependientes del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo y del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, y se atribuyen sus funciones al Eustat-Instituto Vasco de Estadística.
Bigarrena.- Araua egiteko prozeduraren jarraipena xedatzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egin daitezela agintzea, bat etorriz Prozedura hasteko 2026eko urriaren 13ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoarekin.	**Segundo.-** Disponer la continuación del procedimiento de elaboración de la norma, ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, todo ello de conformidad con las premisas expresadas en la Orden de inicio de 13 de octubre de 2026, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria Gasteizen / En Vitoria-Gasteiz,

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua
El vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo
MIGUEL TORRES LORENZO

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua

El consejero de Vivienda y Agenda Urbana
DENIS ITXASO GONZÁLEZ

Elektronikoki sinatua/ Firmado electrónicamente

X/2026 DEKRETUA, XXXren XXkoa, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren mendeko berariazko estatistika-organoak kendu eta haien eginkizunak Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari esleitzen dizkiona.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 26.1 artikuluan ezartzen duenez, berariazko estatistika-organo bat eratuta daukaten Jaurlaritzako sailek gauzatuko dute, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko jarduna, lege horretan aurreikusitako baldintzetan.

Era berean, aipaturiko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 27. artikuluan ezartzen duenez, Jaurlaritzako sailen berariazko estatistika-organoak araudi propioei jarraikiz erregulatuko dira.

Esparru hori aplikatzeko sortu ziren Lan eta Enplegu Sailaren Berariazko Estatistika Organoa —maiatzaren 18ko 136/2021 Dekretuaren bidez—, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Berezia —irailaren 14ko 207/2021 Dekretuaren bidez—. Azken dekretu hori indargabetu egin zuen, garraioei buruzko zatian, urriaren 21eko 203/2025 Dekretuak, Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Berariazko Estatistika Organoa sortzen duenak.

Bestalde, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren berariazko estatistika-organoa sortzeko dekretua onesten ez den bitartean, indarrean jarraituko dute beste bi dekretuk (alegia, 136/2021 Dekretua, maiatzaren 18koa, Lan eta Enplegu Sailaren Berariazko Estatistika Organoa sortzen eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen duena, eta 48/2005 Dekretua, martxoaren 8koa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta bere antolakuntza eta jarduera ezartzen dituena), Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren jardun-arloei dagozkien estatistika-lanak bete ahal izateko.

Halaber, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuak Zerbitzu Zuzendaritzan txertatzen du iraungitako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Berezia. Organo hori irailaren 14ko 207/2021 Dekretuaren bidez sortu zen, eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Estatistika Organo Berezi bihurtu zen, sailaren jardun-arloei dagokien estatistika-jarduerari estaldura emateko.

Hasieran, bi sailen asmoa zen beren estatistika-organoen bitartez jarraitzea sail bakoitzaren estatistika-jarduera. Alabaina, Eustat – Euskal Estatistika Erakundearekin batera hausnarketa estrategiko sakonagoa egin ondoren, egokiagoa iruditu zaie organismo horretan bertan zentralizatzea sailen estatistika. Izan ere, organo horien eginkizunak Eustat – Euskal Estatistika Erakundean zuzenean txertatzea aholkatzen dute metatutako esperientziak, Euskal Estatistika Sistema sendotu izanak eta koherentzia metodologikoa, baliabideen eraginkortasuna eta produkzio estatistiko publikoaren zentralizazioa indartzeko beharrak.

Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organo Bereziak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren 3. artikuluak Eusko Jaurlaritza gaitzen du dauden berariazko estatistika-organoak aldatzeko edo kentzeko, administrazio-eraginkortasunaren eta -arrazionalizazioaren irizpideen arabera. Bertan adierazitakoari jarraituz, dekretu honen bidez, zera erabakitzen da: aipatutako estatistika-organo horiek kentzea, horien eginkizunak Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari esleitzea eta estatistika-organo horietan zerbitzuak ematen ari ziren langileak organismo autonomo horri atxikitzea.

Horiek horrela, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren proposamenez, Euskal Estatistika Batzordeari kontsultatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko xxxxxaren xxxxx(e)an egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Berariazko estatistika-organoak kentzea.

1.– Dekretu honen bidez, hauek kentzen dira:

a) Gaur egungo Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Berariazko Estatistika Organoa, maiatzaren 18ko 136/2021 Dekretuaren bidez sortua, zeinaren bidez sortzen baita Lan eta Enplegu Sailaren Berariazko Estatistika Organoa eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen.

b) Gaur egungo Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Berariazko Estatistika Organoa, irailaren 14ko 207/2021 Dekretuaren bidez sortua, zeinaren bidez sortzen baita Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Berariazko Estatistika Organoa eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen.

2.– Bi estatistika-organo horiek kentzeak bi dekretuak indargabetzea dakar, organo horien sorrerari, egiturari eta funtzionamenduari dagokienez.

2. artikulua.– Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari eginkizunak esleitzea.

1.– Dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak beteko ditu sorrerako dekretuei jarraikiz kendutako organoei zegozkien estatistika-eginkizunak, bere eskumenen esparruan eta Euskal Estatistika Planean eta Urteko Estatistika Programetan jasotako programa eta eragiketen arabera.

2.– Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak, hala dagokionean, lankidetza-akordioak edo -hitzarmenak egin ahal izango ditu bi sailekin, bere sektore-eremuko estatistika-eragiketen jarraitutasuna, espezializazioa eta garapena bermatzeko.

3.– Era berean, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak gaur egun planean eta urteko estatistika-programetan jasotzen ez diren estatistikak egin ahal izango ditu, bi sailei aitortutako helburu eta eskumenei dagokienez. Eragiketa horiek, ofizialdu nahi izanez gero, dagozkien urteko estatistika-plan eta -programetan sartu beharko dira. Estatistika ez-ofizial gisa garatu nahi izanez gero, Jaurlaritzak onartu beharko ditu, ekimen bateratuko dekretu baten bidez, Euskal Estatistika Batzordeak aldeko txostena egin ondoren. Hala badagokio, txosten horrek egiaztatuko du estatistika horiek egiteak ez duela bikoiztasunik sortzen lehendik dauden beste estatistika batzuekiko.

4.– Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak, halaber, eginkizun gisa jasoko du bi sailek beren eginkizunak betetzeko eskatutako eskaerei garaiz eta forman erantzutea, hala nola Estatuko Administrazio Orokorrari datuak ematea edo bi sailek jasotako kontsulta parlamentarioei edo herritarren kontsultei erantzutea. Erreferentziazko profesional bat izendatuz bermatuko zaio sail bakoitzari eginkizun hori beteko dela, zerbitzu horren arretaren eta prestazioaren arduradun izango den profesionala.

5.– Azkenik, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak bere gain hartuko du bi sailek hirugarrenekin indarrean dituzten eta gaur egun bi sailen ardura diren estatistika-emaitzen ekoizpenaren jarraipena bermatzeko beharrezkoak diren kontratu eta hitzarmenen kudeaketa.

3. artikulua.– Langileak atxikitzea.

1.– Kendutako berariazko estatistika-organoei atxikitako langileak Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari atxikiko zaizkio, dekretu hau indarrean sartu zenean zituzten eskubide ekonomiko eta administratibo berekin, hargatik eragotzi gabe haiek funtzionalki eta organikoki txertatzetik eratortzen diren doikuntzak.

2.– Enplegu Publikoko Zuzendaritzak eta Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak berak neurriak hartuko dituzte eragindako langileak behar bezala laneratzeko, eta estatistika-zereginek jarraipena izango dutela eta enplegatuen eskubideak mantenduko direla.

4. artikulua.– Baliabideak eta dokumentazioa eskualdatzeko araubidea.

Eustat – Euskal Estatistika Erakundearen ondarean eta kudeaketa-sistemetan txertatuko dira kendutako berariazko estatistika-organoei atxikitako baliabide materialak eta dokumentalak, informazio-sistemak, datu-baseak eta gainerako aktibo digitalak barne.

5. artikulua.– Estatistika-koordinazioa.

1.– Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko berariazko estatistika-organoak kendu ondoren, sail horietako bakoitzean Sailen Estatistika Batzorde bana eratuko da, administrazioen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako gune tekniko gisa, estatistika-jardueraren antolamendu, koherentzia eta eraginkortasun egokia bermatzeko, bakoitzak bere eskumen-eremuan.

2.– Hau da batzorde horien osaera:

a) Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen ordezkari gisa, Zuzendaritza Nagusiko titularrak edo hark eskuordetzen duenak parte hartuko dute, bai eta dagokion arloko arduradunak ere, dagokion sailaren eskumen-eremuari lotutako estatistika-eragiketen arabera. Landu beharreko gaien izaerak hala eskatzen duenean, estatistika-eragiketa zehatzetan espezializatutako teknikariak ere sartu ahal izango dira.

b) Sailen ordezkaritzan, estatistika-jardueraren xede diren gaietan eskumena duten zuzendaritza-organoetako titularrek parte hartuko dute, edo, hala badagokio, dagozkien arlo funtzionaletako arduradunek.

6. artikulua.– Sailen Estatistika Batzordeen funtzionamendu-araubidea.

1.– Sailen Estatistika Batzordeak gutxienez urtean bi aldiz bilduko dira, Eustat – Euskal Estatistika Erakundearen ekimenez edo ordezkatutako aldeetako batek eskatuta.

2.– Bileraren jakinarazpenean, aztertu beharreko gaiak zein diren adieraziko da, eta behar besteko aurrerapenaz egingo da, bilera prestatzen laguntzeko.

3.– Bilerako aktaren bidez utzi ahal izango da bileren berri. Akta horretan, aztertutako gaiak eta, hala badagokio, egin beharreko jarduketak jasoko dira.

7. artikulua.– Koordinazio- eta jarraipen-jarduketak.

Sailen Estatistika Batzordeek, haien izaera tekniko eta funtzionalaren esparruan, koordinazio- eta jarraipen-jarduketa hauek kanalizatzeko balioko dute.

a) Eustat Euskal Estatistika Erakundeak ekonomia, lan eta enplegu arloan eta etxebizitza eta hiri-agendaren arloan eskumenak dituzten sailei ematen dien zerbitzuaren jarraipena egitea, dekretu honetan esleitzen zaizkion eginkizunei dagokienez.

b) Indarrean dauden estatistika-eragiketak aztertzea, ofizialak zein ez-ofizialak, sailen beharretara egokitzen diren egiaztatzeko, eta, hala badagokio, horien diseinuan, gauzatzean edo emaitzetan hobekuntzak proposatzeko.

c) Sailek estatistika-informazioari dagokionez dituzten behar berriak identifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea, eskura dituzten baliabideen eta gaitasunen arabera, eta lehentasunez aintzat hartzea beren eskumen-eremuetatik eratorritako eskakizunak.

d) Berariazko estatistika-organoak kendu dituzten sailek horiek sortzeko asmoa izanez gero, ekimen hori Sailen Estatistika Batzordeetan aztertu eta ebaluatu beharko da, dekretu honetan aurreikusitako antolaketa-eredura egokitzen den baloratzeko. Era berean, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak bere gain hartzen zituen eragiketa estatistikoak organo horiei berresleitzeko aukera aztertuko da, dagozkien eskumen-eremuetan.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– BAKARRA.– Aribidean dauden estatistika-eragiketak.

Dekretu hau indarrean sartzean abian diren estatistika-eragiketak Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak jarraitu eta amaituko ditu, eraginpeko sailekin koordinatuta.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– BAKARRA.– Arau indargabetuak.

Dekretu hauek indargabeturik geratzen dira: batetik, 136/2021 Dekretua, maiatzaren 18koa, zeinaren bidez Lan eta Enplegu Sailaren Berariazko Estatistika Organoa sortzen baita eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen; eta, bestetik, 207/2021 Dekretua, irailaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu zuena, bai eta dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretua aldatzea.

Aldatu egiten da 323/2024 Dekretua, azaroaren 5ekoa, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Bat.– 5.h) artikulua berridazten da, eta honela idatzita geratzen da:

«h) Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari helaraztea zuzendaritza bakoitzaren berezko arloetako estatistika-datuei buruz beharrezkoa den informazioa».

Bi.– 9.1 artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Ekonomia Sailburuordetzak, Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren zuzendaritzapean, honako arlo hauetan sailari esleitutako egitekoak beteko ditu: Jaurlaritzaren politika ekonomikoaren plangintza; ikerketa, azterlanak, metodo ekonomikoak; koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoa; estatistika; Europako Suspertze eta Erresilientzia Funtsen (SEM) koordinazioa eta jarraipena, baita egiturazkoak ez diren aldi baterako Europako beste finantzaketa-tresna eta -funts batzuena ere, baldin eta horien kudeaketan Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen badu edo laguntza edo aholkularitza ematen badie pertsona edo entitate onuradunei. Sailburuordeak honako egiteko hauek izango ditu, 4. artikuluan esleitzen zaizkionez gainera:».

Hiru.– Aldatu egiten da 10. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«10. artikulua.– Ekonomia Zuzendaritza.

Ekonomia Zuzendaritzak honako egiteko hauek izango ditu, 5. artikuluan esleitzen zaizkionez gainera:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren sektore edo segmentuetako errealitate sozioekonomikoari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea, sustatzea eta zabaltzea.

b) Euskal ekonomiari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak egitea, bai orokorrak, bai sektorialak.

c) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituen eta jardun ekonomikoan

eragina duten azterlanak koordinatzea, eta ekonomiaren arloan diharduen edozein organori laguntza teknikoa ematea, Gobernu Kontseiluak, hala badagokio, ezarritako baldintzetan.

d) Ikerketa ekonomikorako metodoak garatzea; bereziki, euskal ekonomiarako ereduak eta ekonomia horren sektore edota segmentuetarako ereduak.

e) Euskadiko aurrekontu-araubidearen araudian eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenean aurreikusitako Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari buruzko urteko eta seihileko txostenak egitea, bai eta Euskal Sektore Publiko osoaren ekonomia-jardueraren jarraipena eta analisia egitea ere, bai administrazio publikoena, bai haiei atxikitako sektore publikoarena.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren eta politika ekonomikoko plangintzaren egoeraren eta bilakaera orokor eta sektorialaren jarraipena egitea –erkidegoarena zein erkidegoan eragina duenarena–, baita nazioko eta nazioarteko koiuntura ekonomikoarena ere, aurreikuspen-teknikak sortuz eta erabiliz eta koiuntura ekonomikoari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak eginez.

g) Eskualde, nazio eta nazioarte mailako adierazle ekonomikoen datu-baseak mantendu eta ustiatzea.

h) Estatuko eta nazioarteko organismo eta foroekin elkarrizketak izatea aurreikuspen ekonomikoen arloari buruz.

i) Lankidetzan aritzea saileko sailburuordetzekin, bere eskumeneko arloetan jarduera esanguratsuak planifikatzeko edo egiteko laguntza teknikoa izan daitezkeen azterlanak egiten.

j) Eustat – Euskal Estatistika Erakundearekin lankidetzan aritzea sailaren berezko eskumenei dagozkien eremuetan estatistika-behar berriak identifikatzeko.

k) Oro har, proposamenak bultzatzea eta garatzea euskal ekonomian eta enpleguan eragin onuragarria izan dezakeen erregulazioa hobetzeko».

Lau.– Aldatu egiten da 17.d) artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«d) Eustat – Euskal Estatistika Erakundearekin lankidetzan jardutea Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoei eta zerbitzuei buruzko estatistikak planifikatu eta diseinatzeko, eta estatistika horiek landu eta mantentzeko, gainerako euskal administrazioekin lankidetzan, estatistika-araudiari eta gizonen eta emakumeen berdintasunari buruzko araudiari jarraikiz».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretua aldatzea.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretua aldatzen da, honela:

Bat.– 7.1.f) artikulua berridazten da, eta honela idatzita geratzen da:

«f) Informazio-sistemak».

Bi.– 7. artikuluko 2. paragrafoko c) letra kentzen da.

Hiru.– 7. artikuluko 3. paragrafoa ezabatzen da.

Lau.– 14.2.j) artikulua berridazten da, eta honela idatzita geratzen da:

«j) Zerbitzu Zuzendaritzari proposatzea, Estatistika Planean sar ditzala berariaz Etxebizitza Sailburuordetzakoak diren gaiei buruzko eragiketak, baita gai horiei buruzko txostenak, azterlanak eta estatistika-analisiak egitea ere».

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko XXXXXXXaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.

DECRETO X/2026, de xx de xx , de supresión de los órganos estadísticos específicos dependientes del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo y del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, y se atribuyen sus funciones al Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi establece en su artículo 26.1 que la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se llevará a cabo, en los términos previstos en la citada Ley, entre otros, por aquellos Departamentos del Gobierno que tuvieren constituido en su seno un órgano estadístico específico.

El artículo 27 de la mencionada Ley 4/1986, de 23 de abril, determina que los órganos estadísticos específicos de los Departamentos del Gobierno se regularán por su normativa propia.

En aplicación de dicho marco, fueron creados el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Trabajo y Empleo, mediante Decreto 136/2021, de 18 de mayo, y el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, mediante Decreto 207/2021, de 14 de septiembre, que fue derogado, en la parte referente a Transportes, por el Decreto 203/2025, de 21 de octubre, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Movilidad Sostenible.

Por su parte, la disposición transitoria primera del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo establece que, en tanto no se apruebe el decreto de creación del órgano estadístico específico del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, mantendrán su vigencia el Decreto 136/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Trabajo y Empleo y el Decreto 48/2005, de 8 de marzo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Hacienda y Administración Pública, a fin de dar cobertura a la actividad estadística correspondiente a las áreas de actuación del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

Igualmente, el Decreto 411/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, integra en la Dirección de Servicios el órgano estadístico específico del extinto Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes creado mediante Decreto 207/2021, de 14 de septiembre, que pasa a ser el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, a fin de dar cobertura a la actividad estadística correspondiente a las áreas de actuación departamental.

En principio era intención de ambos departamentos la continuidad de la actividad estadística departamental a través de sus órganos estadísticos propias. Sin embargo, tras una reflexión estratégica más profunda junto con el Eustat-Instituto Vasco de Estadística se ha estimado más adecuado centralizar la estadística departamental en el propio organismo. La experiencia acumulada, la consolidación del Sistema Estadístico Vasco y la necesidad de reforzar la coherencia metodológica, la eficiencia de recursos y la centralización de la producción estadística pública, aconsejan proceder a la integración directa de las funciones de dichos órganos en Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

El artículo 3 del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno habilita al Gobierno Vasco para modificar o suprimir los órganos estadísticos específicos existentes, en atención a criterios de eficacia y racionalización administrativa. Siguiendo lo expresado en el mismo, mediante el presente decreto se acuerda la supresión de los citados órganos estadísticos, la atribución de sus funciones al Eustat-Instituto Vasco de Estadística, y la readscripción del personal que venía prestando servicios en ellos a dicho organismo autónomo.

En su virtud, a propuesta del vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo y del consejero de Vivienda y Agenda Urbana, previa consulta a la Euskal Estatistika Batzordea/Comisión Vasca de Estadística, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día xx de xxxxx de 2026,

DISPONGO:

Artículo 1. Supresión de órganos estadísticos específicos

1.- Mediante el presente decreto quedan suprimidos:

a) El Órgano Estadístico Específico del actual Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, creado por el Decreto 136/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Trabajo y Empleo y se establece su organización y funcionamiento.

b) El Órgano Estadístico Específico del actual Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, creado por el Decreto 207/2021, de 14 de septiembre, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y se establece su organización y funcionamiento.

2.- La supresión de ambos órganos estadísticos supone la derogación de ambos decretos en lo que respecta a la creación, estructura y funcionamiento de los citados órganos.

Artículo 2. Atribución de funciones al Eustat-Instituto Vasco de Estadística

1.- Las funciones estadísticas que correspondían a los órganos suprimidos en virtud de sus decretos de creación serán ejercidas, a partir de la entrada en vigor del presente decreto, por el Eustat-Instituto Vasco de Estadística, en el marco de sus competencias y conforme a los programas y operaciones incluidos en el Plan Vasco de Estadística y en los Programas Estadísticos Anuales.

2.- Eustat-Instituto Vasco de Estadística podrá formalizar, cuando proceda, acuerdos o convenios de colaboración con ambos departamentos, a fin de asegurar la continuidad, especialización y desarrollo de las operaciones estadísticas de su ámbito sectorial.

3.- Asimismo, el Eustat-Instituto Vasco de Estadística, podrá realizar estadísticas no incluidas actualmente en el plan y en los programas estadísticos anuales, en relación con los fines y competencias reconocidos a ambos departamentos. Estás operaciones, en caso de querer oficializarse, deberán ser incorporadas en los correspondientes planes y programas estadísticos anuales. En caso de querer desarrollarse como estadísticas no oficiales, deberán ser aprobadas por el Gobierno mediante decreto de iniciativa conjunta, previo informe favorable de la Comisión Vasca de Estadística que, en su caso, acreditarán que su realización no supone duplicidad con otras estadísticas existentes.

4.- Eustat-Instituto Vasco de Estadística también recogerá como función la atención, en tiempo y forma, a las peticiones requeridas por ambos departamentos para el ejercicio de sus funciones, tales como el suministro de datos a la Administración General del Estado o la respuesta a consultas parlamentarias y de la ciudadanía recibidas por ambos departamentos. La realización de esta función se garantizará a cada departamento mediante la designación de un profesional de referencia, responsable de la atención y prestación de este servicio en relación con el mismo.

5.- Finalmente, Eustat-Instituto Vasco de Estadística asumirá la gestión de los contratos y convenios que ambos departamentos tienen en vigor con terceros y que son necesarios para garantizar la continuidad de la producción de los resultados estadísticos que son

actualmente responsabilidad de ambos departamentos.

Artículo 3. Readscripción del personal

1.- El personal adscrito a los órganos estadísticos específicos suprimidos se readscribe a Eustat-Instituto Vasco de Estadística, con los mismos derechos económicos y administrativos que ostentaba en el momento de la entrada en vigor de este decreto, sin perjuicio de los ajustes que se deriven de su integración funcional y orgánica.

2.- La Dirección de Empleo Público y el propio Eustat-Instituto Vasco de Estadística adoptarán las medidas necesarias para la adecuada incorporación del personal afectado, garantizando la continuidad de las tareas estadísticas y la conservación de los derechos de las personas empleadas.

Artículo 4. Régimen de traspaso de medios y documentación

Los medios materiales y documentales adscritos a los órganos estadísticos específicos suprimidos, incluidos los sistemas de información, bases de datos y demás activos digitales, se integrarán en el patrimonio y sistemas de gestión del Eustat-Instituto Vasco de Estadística.

Artículo 5. Coordinación estadística

1.- Tras la supresión de los correspondientes órganos estadísticos específicos del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo y del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, se constituirán, en cada uno de ellos, sendos Comités Estadísticos Departamentales como espacios técnicos de coordinación y colaboración interadministrativa con la finalidad de garantizar la adecuada ordenación, coherencia y eficacia de la actividad estadística en sus respectivos ámbitos competenciales.

2.- La composición de dichos Comités será la siguiente:

a) En representación del Eustat Instituto Vasco de Estadística, participarán la persona titular de la Dirección General o persona en quien delegue, así como la persona responsable del área correspondiente en función de las operaciones estadísticas vinculadas al ámbito competencial del departamento respectivo. Cuando la naturaleza de los asuntos a tratar lo requiera, podrán incorporarse personas técnicas especializadas en operaciones estadísticas concretas.

b) En representación de los departamentos, participarán las personas titulares de los órganos directivos competentes en las materias objeto de actividad estadística o, en su caso, las personas responsables de las correspondientes áreas funcionales.

Artículo 6. Régimen de funcionamiento de los Comités Estadísticos Departamentales

1.- Los Comités Estadísticos Departamentales se reunirán, al menos, dos veces al año, a iniciativa del Eustat-Instituto Vasco de Estadística o a solicitud de cualquiera de las partes representadas.

2.- La comunicación de la reunión indicará los asuntos a tratar y se realizará con la antelación suficiente para facilitar su preparación

3.- De las reuniones podrá dejarse constancia mediante un acta de la reunión, en la que se recojan las cuestiones examinadas y, en su caso, las actuaciones a desarrollar.

Artículo 7. Actuaciones de coordinación y seguimiento

En el marco de su naturaleza técnica y funcional, los Comités Estadísticos

Departamentales servirán para canalizar las siguientes actuaciones de coordinación y seguimiento:

a) Realizar el seguimiento de la prestación del servicio por el Eustat Instituto Vasco de Estadística a los Departamentos competentes en las áreas de Economía, Trabajo y Empleo y de Vivienda y Agenda Urbana, en relación con las funciones que se le atribuyen en el presente decreto.

b) Analizar las operaciones estadísticas vigentes, tanto oficiales como no oficiales, con el fin de verificar su adecuación a las necesidades de los departamentos y, en su caso, proponer mejoras en su diseño, ejecución o resultados.

c) Identificar nuevas necesidades de información estadística por parte de los departamentos y analizar su viabilidad en función de los recursos y capacidades disponibles, atendiendo prioritariamente a los requerimientos derivados de sus ámbitos competenciales.

d) En el supuesto de que los departamentos que hubieran suprimido sus órganos estadísticos específicos planteen su creación, dicha iniciativa deberá ser analizada y evaluada en el seno de los Comités Estadísticos Departamentales, a fin de valorar su adecuación al modelo organizativo previsto en el presente decreto. Asimismo, se examinará, la eventual reasignación a dichos órganos de las operaciones estadísticas que, en los correspondientes ámbitos competenciales, vinieran siendo asumidas por el Eustat Instituto Vasco de Estadística.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA.– Operaciones estadísticas en curso.

Las operaciones estadísticas en curso a la fecha de entrada en vigor del presente decreto serán continuadas y finalizadas por el Eustat-Instituto Vasco de Estadística, previa coordinación con los departamentos afectados.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA.– Normas derogadas.

Quedan derogados el Decreto 136/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Trabajo y Empleo y se establece su organización y funcionamiento y el Decreto 207/2021, de 14 de septiembre, por el que se creó el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente decreto.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.– Modificación del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

Se modifica el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo en los siguientes términos:

Uno.– Se da nueva redacción al artículo 5.h), que queda redactado como sigue:

«h) Remitir a Eustat-Instituto Vasco de Estadística la información pertinente sobre los datos estadísticos en materias propias de cada dirección».

Dos.– Se da nueva redacción al artículo 9.1, que queda redactado como sigue:

«1.– La Viceconsejería de Economía, bajo la superior dirección del Consejero o Consejera de Economía, Trabajo y Empleo, ejercerá las funciones atribuidas al departamento en materia de planificación de la política económica del Gobierno, investigación, estudios, métodos

económicos, coyuntura y previsión económica, así como la coordinación y seguimiento de los fondos europeos de recuperación y resiliencia (MRR), y de cualesquiera otros fondos o instrumentos de financiación europeos de carácter temporal y naturaleza no estructural, en cuya gestión participe la Comunidad Autónoma de Euskadi o preste asistencia o asesoramiento a las personas o entidades beneficiarias, correspondiendo a su titular, además de las funciones señaladas en el artículo 4, las siguientes:».

Tres.– Se modifica el artículo 10, que queda redactado como sigue:

«Artículo 10.– Dirección de Economía

A la Dirección de Economía le corresponden, además de las funciones señaladas en el artículo 5, las siguientes:

a) Elaborar, promover y difundir estudios e investigaciones sobre la realidad socioeconómica de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sectores y/o segmentos de la misma.

b) Realizar estudios, informes y publicaciones sobre la economía vasca, de carácter general o sectorial.

c) Coordinar los estudios con incidencia en la actividad económica realizados por la Administración General de la Comunidad Autónoma, prestar apoyo técnico a cualquier órgano que opere en el campo económico, en los términos que establezca, en su caso, el Consejo de Gobierno.

d) Desarrollar métodos de investigación económica, y en particular, de modelos de la economía vasca y de sectores o segmentos de aquella.

e) Elaborar los informes anuales y semestrales sobre la situación económica de la Comunidad Autónoma del País Vasco previstos en la normativa reguladora del régimen presupuestario de Euskadi y del Consejo Económico y Social Vasco, así como realizar el seguimiento y análisis de la actividad económica del conjunto del Sector Público Vasco, tanto de las administraciones públicas como del sector público adscrito a las mismas.

f) Realizar el seguimiento de la situación y evolución global y sectorial de la economía y de la planificación de la política económica del País Vasco, o con incidencia en la misma, así como de la coyuntura económica nacional e internacional, mediante la elaboración y utilización de técnicas de previsión y la realización de análisis, informes y publicaciones sobre coyuntura económica.

g) Mantener y explotar las bases de datos de indicadores económicos a nivel regional, nacional e internacional.

h) La interlocución con los organismos y foros estatales e internacionales en materia de previsiones económicas.

i) Colaborar con las viceconsejerías del departamento en la realización de estudios que sirvan de apoyo técnico a la planificación o realización de actuaciones significativas en las áreas de su competencia.

j) Colaborar con Eustat-Instituto Vasco de Estadística en la identificación de nuevas necesidades estadísticas en los ámbitos relativos a las competencias propias del Departamento.

k) En general, impulsar y desarrollar propuestas para la mejora de la regulación que pueda tener una repercusión favorable en la economía vasca y en el empleo».

Cuatro.– Se modifica el artículo 17.d), que queda redactado como sigue:

«d) Colaborar con Eustat-Instituto Vasco de Estadística en la planificación y el diseño de las estadísticas relativas a las prestaciones económicas y servicios del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, así como su elaboración y mantenimiento, en cooperación con las demás administraciones vascas, de acuerdo con la normativa estadística y para la igualdad de hombres y mujeres».

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.– Modificación del Decreto 411/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana.

Se modifica el Decreto 411/2024, de 5 de noviembre, 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana en los siguientes términos:

Uno.– Se da nueva redacción al artículo 7.1.f), que queda redactado como sigue:

«f) Sistemas de Información».

Dos.– Se suprime la letra q) del párrafo 2 del artículo 7.

Tres.– Se elimina el párrafo 3 del artículo 7.

Cuatro.– Se da nueva redacción al artículo 14.2.j), que queda redactado como sigue:

«j) La propuesta a la Dirección de Servicios de inclusión en el Plan de Estadística de operaciones en materias propias de la Viceconsejería de Vivienda, así como la elaboración de informes, estudios y análisis estadísticos en las citadas materias».

DISPOSICIÓN FINAL TERCERA.– Entrada en vigor

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a XX de XXXXXXX de 2026.

El lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL.

El vicepresidente segundo del Gobierno y consejero de Economía, Trabajo y Empleo,
MIGUEL TORRES LORENZO.

El consejero de Vivienda y Agenda Urbana,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.